

29 zenbakia
2019ko urria

bai

Bai Euskarari
Elkartearen aldizkaria

#BAIEUSKARARI **SARIAK19**



MERTXEMUGIKA

ABB NIESSEN



BORDATXO





Rober Gutiérrez
[Zuzendaria]
@robergutierrez

#BaiEuskarariSariak 19.

Euskararen bidea argitzen

Bai Euskarari Elkartearen xedea da alor sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko bidean eragitea, komunitatea sustatuz eta tresna, baliabide zein proiektu berritzaileak eraikiz eta partekatuz. Horien artean, Bai Euskarari Ziurtagiria, Enpresarean, Lansarean lan-ataria, Euskaragileak, Lanabes, eta abar luze bat aipa daitezke.

Euskararen bidea argitzen lanean ari gara Bai Euskarari Elkarte, Bai Euskarari komunitatea osatzen duzuen guztiokin elkarlanean. Izpiz izpi, guztion argiak dira beharrezko euskararen bidea gero eta distiratsuagoa izan dadin. Horretara dator, urtero bezala, Bai Euskarari sarien ekitaldia, Bai Euskarari komunitatearen egun handia. Komunitatea indartzeko modu bat da egindako lana aitortzea eta ingurukoei bidea erakustea.

Euskarari eta euskararen unibertsoari argia, energia, indarra... ematen dizkieten bi enpresa eta emakume bat aitortu nahi ditugu aurtengoan, euskaraz lan egin eta euskaraz bizi nahi dugunontzat erreferente baitira. Errekonozimendu bat jasotzeak poza ematen du, egindako lana aitortzen delako. Horretan ados daude aurtengo hiru saridunak.

Batetik, Deustuko Bordatxo jatetxea. Iturri zaharretatik edan dute ur berria, aurreko belaunaldietatik jasotako sukaldaritza berritzeko gaitasuna izan baitute. Era berean, beti argi izan dute euskara izango zela negozioaren hizkuntza nagusia, barrura begira zein bezerooi egiten zaigun eskaintzan, produktuak eta zerbitzuak euskaraz eskaini behar baitzaizkio bezeroari, lehiakorrak eta kalitatekoak izango badira.

Bestetik, Errenteriako ABB-Niessen enpresa. Multinazional baten parte, tentsio baxuko aparatuak diseinatu eta ekoizten dituzte bertan. Euskararen presentzia gero eta handiagoa da, batez ere aurten 20. urteurrena ospatzen ari den bere euskara batzordeak garatu duen lan traktoreari esker. Motibazio ekimenak antolatzetik hasi ziren, kohesio sozialean eragin dute eta euskara kudeaketan integratzera iritsi dira.

Hirugarren saria, azken 13 urteotan AEK-ko koordinatzaile nagusia izan den Mertxe Mugikarentzat da. Zikloa borobilduta eta ardurak alde batera utzita, seguru nago zubiak eraikitzen laguntzen eta euskaraz bizitzeko aukerak sortzen eta eratzen jarraituko duela aurrerantzean.

Bejondeizuela!

Kolaborazioa 03

Txarles Ranero

Bai Euskarari Sariak 04

Mertxe Mugika

ABB Niessen

Bordatxo jatetxea

Gasteizko Kanpaina 14

Lansarean 15

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarte
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain
t. 943592148

1 Arsenal Plaza - 64100 Baiona t. 0524336196

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo t. 673811048

Rogelia de Alvaro Elkarte Etxea A.1.1.
Panama, z/g - 01012, Gasteiz t. 945215196

Martzelo Zelaieta, 75 U3 eraikina, 13. bulegoa
31014 Iruñea t. 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkarte eta Arteman Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak:
AEK, Bai Euskarari Elkarte eta
Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

Banaketa: Bai Euskarari Elkarte

Lege gordailua: SS-497-2010

baieuskarari.eus





Txarles Ranero

Ahize-AEK-ko
koordinatzailea

Elkarlana

Edozein hizkuntzaren normalizazio-prozesuk bi ardatz nagusi ditu: batetik, norbanakoak euskalduntzea, eta bestetik, eremuak euskalduntzea. Eta biak ezinbestekoak dira hizkuntza horretan normaltasunez bizi ahal izateko. Lan munduaren euskalduntzean urratsak egitea beharrezkoa dela aldarrikatzen dugu arloko eragile guztiok.

Horrenbestez, normalizazio-prozesuan aurrera egiteko, arlo sozioekonomikoa bereziki zaindu beharreko esparruetako bat da. Horretarako funtsezkoa da norabidea ongi zehaztea, arloko eragile eta administrazioen arteko elkarlana, tresnak eskura izatea eta eraginkortasuna biderkatzeko indarra eta koherentzia erakustea.

Elkarlan horretan, berebiziko garrantzia du Administrazioaren lidergoak, euskalgintza eta eremu sozioekonomikoko eragileekin eta herritarrekin partekatua behar duena. Eta elkarlan publiko-pribatua, proiektu estrategikoak sustatzeko.

Normalizazio-prozesua konpartitua da, eta, ondorioz, eremu sozioekonomikoko eragile guztiok pauso bat harago egin behar dugu euskaraz bizitzeko nahia eta eskubidea bermatuta egon daitezen.

Elkarlan berba aipatu dugu behin eta berriz, eta nik Mertxeren izenarekin erabat lotuta ikusten dut. Izan ere, AEKren misioa gogoan, tamainako helburua dugu jomuga, eta hura betetzeko bidean elkarlana, inurri-lana, ezinbestekoa izan da, eta izango da. Inurritegietan bezala, bakarka baino elkarrekin arituz lortzen direlako helburu handiak, eta hor Mertxe ikusten dut. Hasiera-hasieratik, euskalgintzaren inurritegian elkarlanaren bila aritu izan da, elkarri entzunez eta lan egitera gonbidatuz, eta bidean emaitza politik ikusi ditugu. Mugarri garrantzitsua, eta eragile askok aitortu dutena, Santiagoko Zubiko kilometroa izan daiteke. Edota azken Korrikan hainbat eta hainbat eragile sinatutako konpromisoak. Bada, horietan guztiotan Mertxeren itzala ikusten dut nik. Aupa zu!!!!

Mertxe Mugika AEK-ko koordinatzaile nagusi ohia

“Gustatuko litzaidake hurrengo argazkia helduen euskalduntzea normalizatzeko hitzarmenarena izatea”

Mertxe Mugikak AEK-ko koordinatzaile nagusiaren postua utzi zuen irailaren 30ean, 13 urte egin ostean. Urte horietan guztietan egin duen lana aitortzeko eman diogu aurten Bai Euskarari Saria. Helduen euskalduntzeaz, euskalgintzaz, zubigintzaz eta lan arloaz jardun dugu berarekin, besteak beste.

Bai Euskarari Saria jasoko duzu. Nola hartu duzu sariaren jakinarazpena? Zer suposatzen du horrek zuretzat?

Ezusteko handi moduan hartu nuen; ez nuen inondik inora espero sari hau. Nik uste dut saria nik jasoko dudala, baina badela errekonozimendu bat AEKri eta AEK-k egiten duen lanari. Hasieran sorpresa izan zen, baina pozik hartu dut. 13 urtetan egindako lanari errematea ematea da. Gainera, sari batzuek norbait jubilatzen denean ematen dira; baina sari honek badu balio erantsi bat, desberdina da.

13 urte egin dituzu AEK-ko koordinatzaile nagusi postuan. Zergatik erabaki duzu uztea?

Uztearen arrazoi bakarra da uste dudala horrelako postuak ezin direla bertirako izan, hasiera eta bukaera izan

behar dutela. Eta, gainera, AEK 500 kidek baino gehiagok osatzen dugun erakunde bat izanda, uste dut garrantzitsua dela beste aurpegi batzuk ere erakustea.

Zein izan da sektorearen bilakaera urte hauetan? Zein izan dira erroka nagusiak? Irakasleen prestakuntzan, modulazioan, teknologia berriak ere hor daude...

Bilakaera positiboa da zalantzarik gabe. Hasi nintzenean oso atomizatuta geunden. Beno, bazeuden bilgune batzuk, Kontseilua hor zegoen... eta Kontseiluak kristoren lana egin du bilgune horiek bultzatzen. Hala ere, uste dut oso atomizatuta geundela, bakoitza bere lekuan. Eta gaur egun euskalgintza elkarlanean ari da arlo askotan; eta baita administrazioarekin eta beste esparru batzuetan ere. Hala, bilakaera ona izan da, foro askotan batera parte hartzen dugu, hainbat diag-

nostiko konpartituak dira... eta esango nuke beste aro batean sartuko garela, eta ni oso itxaropentsua naiz.

Gurera etorrita, fase desberdinak egon dira: garai batean esaten zen euskalduntze-alfabetatzeak eman zuela berea. Orain dela 6-7 urte, adibidez, beherakada egon zen, baina azken urteotan gero eta handiagoa da euskalduntzen ari den ikasle kopurua. Nahiko nuke, egunen batean, gure euskalgietan kartel bat jartzea itxita daudela adierazteko, ikaslerik ez dagoela jakinarazteko, beharrik ez dagoela... Baina oraindik hau behar-beharrezkoa da. Erabileraren aroan sartu gara, baina erabiltzeko lehenengo premisa da euskara jakitea edo behintzat ulertzea. Eta oraindik Euskal Herriko biztanleen erdiak edo ez daki edo ez du ulertzen. Beraz, lan izugarria daukagu egiteko.

Joan gara aldatzen eta egokitzen beharren arabera. Orain 13 urteko eta gaur



egungo beharrak ez dira berdinak, baina ezagutzen beharrak itzelak dira eta kartel horrek itxaron beharko du.

Eta aurrera begirako erronkak?

Alde batetik, etortzen diren beharrei erantzuten jarraitu behar dugu; bai eta etor litezkeenak aurreikusten ere, nahiz eta horrek dirua eta denbora eskatzen duen. Bestalde, euskara ikasteak denbora eta dedikazioa eskatzen ditu eta, gaur egun, ikasle asko etortzen dira denbora mugatuarekin, beste mila gauza egiteko gogoia izaten dutelako. Ikas-prozesua azkartzeko erronka dugu; ea beste tresna batzuk eskaini ditzakegun denbora falta dutenentzako.

Teknologia berriez ari zara?

Bai. Teknologia berriak eta tresna guztiak erabili ahal izatea. Lotura zuzena dauka erabilerarekin. Teknologia horiek baliatzen ditugu, baina oraindik ere euskara ikasteko aurrez aurreko taldeak dira eraginkorrenak.

Helduen alfabetatze eta euskalduntzean, urte hauetan guztietan, zein izan da bizi izan dituzun unerik goxoenak? eta zailtasunik handienak?

Askok poztzen naiz kaletik noanean -eta hori sarritan gertatu zait- eta euskaltegiko karpeta daraman norbait ikusi eta beste batekin euskaraz ari dela entzutea. Ni horrelako momentu asko-

rekin gelditzen naiz. Edo ikasturte bukaeran balantzeak egiten ditugunean, eta ikusten dudanean aurreikusitako langa gainditu dugula. Momentu asko dira, zorionez.

Zaila egin zaidana, batez ere EAEn, azken urteotan asko lotu garela egiaztagintzarekin, diru laguntzekin... Eta horrek kezkatu egin nau. Baina hemendik gutxira albiste on batzuk emateko moduan egongo da helduen euskalduntze-alfabetatzea. Horri buelta emateko gai izan garelako administrazioa eta gu.

Niretzat titulu bat izatea garrantzitsua da, hori bitarteko bat izan behar da. Baina une batzuetan bitartekoa helburu bihurtzeko arriskua egon da. Ados nago baldintzak egon behar izatearekin, baina kosta egiten zait ulertzea norberaren hizkuntza ikasteko, batzuetan halako dirutza ordaindu behar izatea.

AEKn urtero milaka heldu euskalduntzen diharduzue. Norbanakoon ardura bihurtu da euskalduntzea? Euskalduntzeko proiektu orokorrik ikusten duzu?

Hori helduen euskalduntzearekin eta beste hainbat sektoreekin gertatzen da. Plan sektorial asko egiten dira, denak dira beharrezkoak, baina hizkuntza politika integrala beharko litzateke. Azken finean, helduak euskalduntzeak eragina dauka umeengan, ohituretan, euskal kulturaren kontsumoan, egunkarietan... Askok jo dugu arloko lanak egitera, baina behar dena da bestea. Eta norbanako kontuan esango nuke gaur egun gutxiago uzten

“Norberaren hizkuntza ikasteko batzuetan halako dirutza ordaindu behar izatea kosta egiten zait ulertzea”



dela, baina oraindik badagoela joera bat. Hori aldatzeko, Maialen Lujanbiok eman zuen klabe garrantzitsu bat: hemen norbanakook egin behar dugu eragin eta administrazioak eginarazi. Elkarri entzunez, elkarrekin gauzak landuta eta, gainera, gehituko nuke bikoiztasunak saihestuz. Herri honetan, euskararen biziberritze prozesuan, proiektuak bikoiztu dira. Sinergiak aprobeztatu nahi baditugu, horrelakoeekin bukatu behar da.

Bai Euskarari Elkartean aspalditik ari gara esaten euskarak eremu sozioekonomikoan aurrera egin dezan, euskalgintzaz gain, enpresa, langile, bezero eta administrazioaren bultzada ezinbestekoak direla. Zubiak eraikitzen izan duzu zuk esperientzia AEKn. Nola ikusten duzu eragile ezberdinen arteko elkarlana?

Bai, lan handia egin dugu alor horretan. Eta esango nuke zubi horiek eraikitzen segitu behar dugula. Argazki batetik ekintza batzuetara pasatzen ari gara. Adibidez, Santiagoko zubiaren adibidea hartuta, azkenaldian argazkia utzi eta ekintzetara pasatzen ari ga-

“Ikas-prozesua azkartzeko erronka dugu”

“Prest izango naiz, lehen lerroan ez bada ere, zubiak eraikitzen laguntzeko”

LANsarean bilalan

lansarean.eus

[@lansarean](https://twitter.com/lansarean)

[in lansarean](https://www.linkedin.com/company/lansarean)

Euskarazko lan-ataria

Lan bila zabilta?

Lana eskaintzen duzu?



baieuskarari.eus

[f](#) [t](#) [v](#) [y](#) [..](#) [i](#)

Ziurtagiri bat baino askoz gehiago

rela ikusten ari naiz. Esate baterako, Jaurilaritzak eta Berria-k sinatutako hitzarmena edukiz beteta dago. Horrez gain, UEMAk, hiru Aldundiek eta Jaurilaritzak arnasmoneak babesteko egitasmoa ere aurkeztu dute. Testuinguru honetan gustatuko litzaidake hurrengo argazkia helduen euskalduntze-alfabetatzea normalizatzeko hitzarmenaren argazkia izatea, nolabait urte batzuetako programak bermatuko dituen; edo Bai Euskarari eta Bikain ziurtagiriak norabide berean jartzearen argazkia... Une honetan horretarako oinarriak badaudela iruditzen zait baina horrek eskatzen du bakoitzaren lana eta funtzioa aitortzea eta elkarrekin adostea zein puntutan gauden ados, nolabait euskararen biziberritzean dauden hutsune eta zuloak estaltzen joateko elkarrekin.

Nire aldetik prest izango naiz, lehen lerroan ez bada ere, bide horretan laguntzeko esperientziatik abiatuta.

Lankidetzak esparru sakonak bideratzen ari dira Helduen Euskalduntzean edo komunikabideen alorrean, berriki ikusi izan dugun bezala. Alor sozioekonomikorako antzeko eszenatoki bat irudikatzen duzu, sektorea eta administrazioaren artekoa?

Lehen aipatu dudana bezala, esperientzia handia dagoela ikusten dut, beraz, zubia nahitaez eraiki beharko da. Esate baterako, orain dela hamahiru urte ezinezkoa zen gaur egun ematen ari diren hainbat argazki irudikatzea, baina lanketa egon da horren guztiaren

atzean. Bide beretik, hurrengo urteotan beste hainbat aspektu garatuko direla uste dut. Zentzu horretan, denborak ematen didan perspektibatik begiratuta, baikorra naiz! Euskaraldiak berak ere lana egiteko modua ezarri du eta, nahiz eta zer hobetu bada goen, hutsune horietatik abiatuta bigarren edizioa prestatzeko lanean ari gara. Horrek ez du atzera bueltarik!

Euskal Herriko kooperatiba handienetako bateko buru izan zara 13 urtetan. Zure burua enpresari moduan ere ikusten duzu?

Enpresa bat garen heinean eta Euskal Herriko kooperatiba handienetarikoa gainera, langile kopuruari begiratuz gero, nire burua bai ikusi dut, bertigo handiarekin, gerentzia kontuekin lotuta. Baina, goraiatu nahi dut atzean dudana ekipo oso sendoa, proiektuan sinisten duena, balore propioak partekatzen dituen. Kooperatiba bezala, gure sentitzen dugu enpresa eta lan egiteko modu berezia konpartitzen dugu. Dena den, enpresa bezala bereziak gara, ez baitugu beste enpresa batzuk dituzten globalizazio edo espantsio erronkarik.

Sarritan aipatzen da euskalgintzan ari zareten enpresetako prekaritatea, egoera eskasa...

Egia da prekaritatea egon badagoela, sarritan ez delako kontsideratzen euskalgintzako mugimendua enpresa balitz bezala eta horri buelta eman behar zaio. Jende asko gaude arlo honetan lanean, aberastasuna sortzen

eta gizarteari ekarpena egiten. Beraz, aintzat hartu behar da, industria gara nahiz eta mugitzen ditugun kopuruak talde batzuenak baino txikiagoak izan. Automobilgintzako 5 urtetako planak egiten diren bezala, zergatik ez dira euskararen industria sustatzeko egiten? Sarritan nahastu egiten dira enpresa, kultura, euskara... hortxe dago kontua. Planak eginez gero, prestigioa lortuko genuke eta ibilbide profesionalen euskalgintza aukera bat izatea lortuko litzateke.

Alizia Iribarrenek hartu du zure lekua. Zein gomendio eman diozu?

Nik asko lantzen dudana aspektua enpatia da, bestearen lekuan jartzeak asko laguntzen baitu. Horrez gain, lan taldeak ematen duen indarrean sinesea ere funtsezkoa da. Eta pentsatzea AEK Euskal Herri osoan dagoen erakundea dela eta osotasun horretaz kontziente izatea. Gainera, koherentziaz jokatzeko garrantzitsua da, hau da, esan eta egiten dena bat etortzea. Horixe gomendatuko nioke, niri ere asko lagundu dit eta! ●

“Sinergiak aprobetxatu nahi baditugu, bikoizketekin bukatu beharko da”

**GURE KULTURAREN
KOLORE GUZTIAK**

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

Iñaki Lete eta Txus Alfonso ABB Niessen

“Teknologia aukera izango da euskararentzat”

Niessen enpresako euskara batzordeak 20 urte bete ditu aurten eta, urte berean, Bai Euskarari Saria jasota ederto borobildu dute urteurrena. ABB multinazionalaren barruan dago Niessen lantegia, baina euskararekiko atxikipen handia dute enpresan, langileen arteko kohesiorako gako garrantzitsu bihurtzeraino. Iñaki Lete gerentearekin eta Txus Alfonso Euskara batzordeko kidearekin izan gara hizketan.

Bai Euskarari Saria jasoko duzue. Nola hartu duzue sariaren jakinarazpena? Zer suposatzen du horrek zuentzat?

Iñaki Lete: Enpresa mailan horrelako errekonozimendu bat jasotzeak poza ematen du eta, bereziki, euskara batzordearen lana errekonozitzen delako. 20 urte hauetan egin duten lana azpimarratzekoa da; jendearen eskakizuna jaso dute eta jende asko aritu da borondatezko lanean.

Txus Alfonso: Kasualitatez, gainera, aurten 20 urte betetzen ditu Niesseneko euskara batzordeak. Gauza asko egin ditugu euskararen arloan eta sorpresa izan da, eta poz handia.

ABB Niessen enpresa industrialia da, zer egiten duzue?

(I. L.) Niessen ABB multinazionala-

ren zati da eta hemen tentsio baxuko aparatuak diseinatu eta ekoizten ditugu. Etxean ukitzen ditugun etengailuak eta entxufeak. Alde tekniko garrantzitsua dago eta diseinuak ere garrantzi handia du. 100 urte baino gehiago ditu eta historia luzea du Oarsoaldean. Herrialde ezberdinetan presentzia handia dugu eta 200 bat pertsonak egiten dugu lan.

(T.A.) Herri mailan esanguratsua izan da Niessen lantegia. Adibide baterako, Errenteriako kultura zentroak Niessen du izena. Herriari asko eman dion enpresa da.

ABB multinazionalaren barruan dago gaur egun Niessen. Zein paper du euskarak zuen enpresan? Multinazionalen presentzia du?

(I. L.) Multinazionalaren hizkuntza es-

tandarra ingelesa da. ABB herrialde ezberdinetan dagoenez bere balore garrantzitsu bat da kultura-aniztasuna eta gero eta gehiago komunikatzen da hori ere. Aniztasun horretan ikusi dugu iraunkortasun kontzeptua ere kulturala dela eta euskarak ere baduela hor bere lekua. Kultura-iraunkortasuna ere hor dago eta euskararen presentzia bultzatzea horren parte da. Izan ere, lantegian jendearen grina ikusi dugu euskara normalizatu dadin.

“ABB herrialde ezberdinetan dagoenez, kultura-aniztasuna bere balore garrantzitsu bat da”





Zein neurri hartu dituzue urte hauetan euskara sustatzeko? Nola eta zergatik erabaki zenuten prozesua abiatzea?

(T. A.) Klean oso gutxi gertatzen dena gertatzen da hemen. Triangelu eraginkorra esaten diot nik. Triangelu bertize bakoitza, plano berdinean eta helburu berdinarekin, ekintzen bidez eta kudeaketa planaren bidez, aurrera eramaten dugu helburu baterantz: euskararen presentzia gero eta handiagoa izatea.

Zuzendaritzak, lantegi barruan dagoen kulturak eta pertsonak osatzen dute triangelu hori. Hirurek egiten duten lanari esker sortzen dira ekimen ezberdinak. Hori izan da klabea 20 urte hauetan. Hasieran euskara erabiltzeko motibazio-ekimenak ziren gehien bat eta, ondoren, ekimen ho-

rietatik pasa ginen euskara kudeaketa planean txertatzera.

(I. L.) Hau arrakastatsua izan bada, ekimen hauen atzean jendea egon delako izan da. Euskara batzordean zerbait sortzen egon zaitezke, baina bertako jendearengan ez badago konpromisorik, alferrik da. Euskararen alde egiteko motibazio handia dago langileen artean, eta horrek kohesioa sortzen du enpresan lan egiteko garaian.

(T. A.) Duela 20 urte ez zegoen sindikaturik, langileen asanblada zegoen eta "auzolana" eta "musutruk" bezalako kontzeptuak aurreratuta zeuden langileen artean. ABB-k Niessen hartu zuenean, langileek diagnostiko bat idatzi zuten eta hor puntu batean zehazten zen euskararen trataerak nolakoa behar zuen izan. Hortik hasi

ziren langile batzuk elkartzen eta hura izan zen euskara batzordearen abiapuntua. Motibazioa lanak egin zituzten, ekimen ezberdin asko eta langileen arteko komunitatea sortzea eragin du horrek, kohesio soziala sortzea. Bizitza erdia egin behar dugu hemen eta nahiago dugu kohesioa dagoen leku batean lan egin.

“Euskararen alde egiteko motibazio handia dago langileen artean, eta horrek kohesioa sortzen du enpresan lan egiteko garaian”

20 urte bete ditu aurten enpresako Euskara batzordeak. Zein izan dira urte hauetako erronka nagusiak?

(T. A.) Motibazio-ekintzetatik kudeaketa planera pasa ginen. Atalak lantzeraz. Komunitatea sortzeraz. Departamentu guztiak egon behar ziren euskara batzordean. Beste mugari garrantzitsu bat Bai Euskarari Ziurtagiriak eskuratzea izan zen. Ziurtagiriak euskarari garrantzia ematen dio enpresa barruan eta ekintza-planeari ditugun atal asko lantzen ditugu elkarteari esker.

Aurrera begira, zein erronka dituzue euskararen arloan?

(I. L.) Euskararen presentzia handitu nahi dugu. Lanean gero eta estandarizatuago lan egiten da eta horrek zailtasunak sortzen ditu hizkuntzak gehitzeko. Jendearen motibazioa eta euskararekiko komunitate zentzuak laguntzen digu euskararen presentzia hori handitzen. Maila guztietan normaltasunez ikusten da euskararen erabilera, baina lanaren estandarizazioak ez ditu tartearak hain erraz uzten. Badut esperantza txiki bat teknologia berriak lagungarri izango direla hizkuntza txikiengatik. Mundu digitalean ez da hain ona izango euskararen presentzia, baina ez dut uste hain txarra izango denik ere. Teknologia aukera izango da euskararentzat, atzean motibazio bat eta gogo bat baldin badago.

(T. A.) Horretarako pertsona kritikoak eta arduratsuek behar ditugu. Horrelako pertsonak lortzea zaila da;



motibazioaz gain, ardurak ere hartuko dituzten pertsonak behar dira. Ardura sozialaren barruan dago hizkuntzaren trataera eta ardura sozialaren kontzeptua duten pertsonak behar dira.

(I. L.) Belaunaldi berriekin baikorra naiz ni. Duela urte batzuk oso ezberdina zen hizkuntzen kudeaketa. Hesi asko zeuden hizkuntzei dagokienez. Gaur egun hizkuntzen trataera beste normaltasun batez lantzen da.

(T. A.) Pasa gara euskaraz kafetegian hitz egiteko bilera operatiboak euskaraz egitera. Belaunaldi berriak euskaldunak dira eta kontratazioetan ere euskara jakitea sustatzen da.

Zein gomendio egingo zeniekete bide honetan murgildu nahi duten beste enpresei?

(I. L.) Oso garrantzitsua da langileen artean eskaera bat egotea. Zerbait sustatu nahi bada eskaera bat egon behar da lehenetik. Enpresaren maila guztietan hartu behar da konpromisoa. Hori edukita merezi du bideari ekiteak. Bestalde, horrelako eskaerak kontuan hartzen direnean langileen kohesioa eta motibazio mailan ere laguntzen du.

(T. A.) Eta kohesio sozial hori neurtzeko baditugu adierazleak; euskarak departamentuen arteko hesiak murrizten ditu.

Zein da euskararen egoera industria eta teknologia sektorean?

(I. L.) Uste dut administrazioak terminologia aldetik, adibidez, gauza asko bultzatzen ditzakeela: ISO arauen itzulpena, euskarazko terminologia-hiztegiak, etab. Enpresek egiten dituzten ahaleginak biderkatzeko gauza asko egin ditzake administrazioak. ●

“Enpresarean maila guztietan hartu behar da konpromisoa”

NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN
HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE
AUTO-DIAGNOSTIKOA



baieuskarari.eus



Ziurtagiri bat baino
askoz gehiago

Estitxu Lezea eta Gorka Ganboa Bordatxo jatetxea

Deustun dago Bordatxo jatetxea eta bertako nagusiak dira Estitxu Lezea eta Gorka Ganboa. Jatetxean oso ondo jateaz gain, zerbitzua euskaraz eskaintzen dute eta normaltasunez daramate lana euskaraz egitea.

“Jendeak normaltasunez hartzen du hemen euskaraz egitea”



Bai Euskarari Saria jasoko duzue. Nola hartu duzue sariaren jakinarazpena? Zer suposatzen du horrek zuentzat?

Ez genuen espero horrelakorik inondik inora. Errekonozimendu modura itzela da, oso gustura hartu dugu.

Bordatxo jatetxea eta taberna. Zer egiten duzue? Esan digite oso ondo jaten dela bertan.

Bordatxon hasieratik saiatu gara aurreko belaunaldiengandik jaso ditugun kontzeptuekin lan egiten. Eguneratu ditugu betiko platerak eta egokitu ditugu betiko edariak gaur eguneko gustuetara. Kantuak dioen moduan *Iturri zaharretik edan dugu ur berria*. Baina, ondo edo txarto egiten

dugun, ez gara gu hori epaitu behar dugunak.

Azken aldian ostalaritzan bizirik mantentzea erronka handia dela dirudi. Zein da zuen sekretua?

Horrelako negozio txikia mantentzea erraza izan da guretzat gure helburua ez delako enpresariala izan. Gure helburua izan da honetaz bizitzea eta disfrutatzea. Horregatik, momentu latzak pasatu ditugu, batez ere krisi garaian, baina bizitzeko adina ematen zuenez arazorik gabe eutsi diogu.

Deustun zerbitzua euskaraz eskaintzen duzuen taberna bakarrenetariakoak zarete.

Deustun ostalaritzan eta merkata-

ritzan gutxi gara euskaraz egiten dugunak, baina jendea ez dator hona erakusleiho edo zirku bat ikustera. Jendeak normaltasunez hartzen du hemen euskaraz egitea. Izan ere, hemen ere badago jendea euskaraz bizi eta lan egiten duena. Ostalari eta merkatari askok uste dute euskara lantzeak ez diela ekonomikoki ezer emango, horregatik ez dute egiten euskararen aldeko hautua.


Zergatik egin duzue euskararen aldeko apustua? Zein neurri hartu dituzue urte hauetan euskara sustatzeko?

Estitxu Lezea. Euskararen aldeko apustua pertsonala izan zen. Nik gaztelaniaz egin nituen ikasketak eta 16 urterekin hasi nintzen euskara



mitxelena

LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING



Neurri handiko mekanizazioa

Eziago poligonoa, 21
HERNANI

T. 943 55 25 12 - 16
T. 943 55 28 16

info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



“Saiatu gara aurreko belaunaldiengandik jaso ditugun kontzeptuekin lan egiten”

ikasten. Argi nuen euskara izango zela nire hizkuntza bizitzako arlo guztietan, baita lanean ere. Horregatik, Bordatxo martxan jarri genuenean argi geneukan euskara izango zela bertako hizkuntza nagusia. Gure karta guztietan, menuetan, karteletan... euskara da lehenengo hizkuntza, eta gure bezeroekin ere lehenengo hitza beti euskaraz izaten da.

Gorka Ganboa. Ez dugu lanean egin euskararen aldeko apustua, bizitzan egin dugu apustu hori. Estitxu eta biok euskaldun berriak gara, eta euskalduntzea erabaki genuenean ez genuen erabaki hizkuntza bat ikastea soilik, erabaki genuen euskaraz bizitzeko ahalegina egitea. Lana bizitzaren parte denez, hori ere euskaraz egiten dugu.

Bezeroak estimatzen du zerbitzua euskaraz izatea?

Bilbon ez da erraza izaten ostalaritzan zerbitzua euskaraz aurkitzea; lehenago topatuko duzu ingelesez, euskaraz baino. Bezeroek eskertzen dute zerbitzua



euskaraz izatea, bai bertakoek baita kanpokoek ere. Atzerritarrek ere estimatzen dute euskara ikusi eta entzutea. Horretan jarraitzera animatzen gaitu bezeroen errekonozimenduak.

Kezkatuta zaudete ostalaritzan euskarak duen presentzia eskasarekin?

(E. L.) Egia esan, bai. Azken urteotan gero eta jende gehiago etortzen da kanpotik eta Bilbon,

adibidez, taberna eta jatetxe gehienetako euskararen presentzia gero eta txikiagoa da. Menuak lau, bost edo sei hizkuntzatan aurki ditzakezu, baina euskaraz ez. Euskararen presentzia oso txikia da; gehienez ere “on egin” jarriko du bazter batean. Nire ustez enpresek bakarrik ez, instituzioek ere lagundu egin behar dute euskarari bultzada ematen ostalaritzan. Denon artean saiatu behar gara euskara leku guztietan egon dadin.



enpresarean

enpresarean.eus

[f /enpresarean](https://www.facebook.com/enpresarean)

[@enpresarean](https://twitter.com/enpresarean)

Enpresa eta profesional sarea, euskaraz

Enpresa munduko albisteak
Elkarlanerako komunitatea
Azokari buruzko informazioa
Enpresarean Foroa
Enpresarean TB



baieuskarari.eus

[f](https://www.facebook.com/baieuskarari) [i](https://www.instagram.com/baieuskarari) [y](https://www.youtube.com/baieuskarari) [..](https://www.linkedin.com/baieuskarari) [@](https://www.pinterest.com/baieuskarari)

Ziurtagiri bat baino askoz gehiago



“Bordatxo martxan jarri genuenean argi geneukan euskara izango zela bertako hizkuntza nagusia”

(G. G.) Laguntza behar dugu, halaber, hornitzaile eta instituzioekin gure lana euskaraz egitea lortzeko. Oso zaila da guretzat enpresa handien publizitatea, ordainagiriak eta dokumentazio guztia euskaraz jasotzea. Horregatik behar dugu instituzio eta hornitzaile handien laguntza.

Zein gomendio egingo zeniekete bide honetan murgildu nahi duten

“Instituzioek ere lagundu egin behar dute euskarari bultzada ematen ostalaritzaren munduan”

beste jatetxe edo taberna batzuei?

Jatetxean “basque” jarri eta euskara falta bada ez dauka zentzurik, inkongruentzia izateaz gain nortasunik gabekoa da. Eta hori inguruan sarriegi ikusi dugu. Gure nortasunarekin lotu dugu proiektua, eta naturaltasunez atera zaigu guri horrela egitea. ●

Saridunak, urtez urte:

2009: JEZ (Laudio), IMH Institutua (Elgoibar) eta Kirmen Uribe.

2011: Refractarios Kelsen (Aduna), Hirukide ikastetxea (Tolosa), Sokoia (Hendaia) eta Xabier Mendiguren Bereziartu.

2012: Skunk Funk, Arlan (Erandio) eta Jose Anjel Iribar (Athletic).

2013: VUSA eraikuntzak (Galdakao), Leitzako, Aresoko, Goizuetako eta Aranoko ziurtagiridunak, Anaje Narbaiza (Elay).

2014: Banaiz Bagara, Mendingo Optika (Gasteiz) eta Kike Amonarriz.

2015: Euskal Herria Esnea, Nekatur eta Gaizka Garitano.

2016: Sorginen Museoa eta Lezea (Zugarramurdi), Laneki eta Mikel Lezamiz (Mondragon).

2017: Miren Fuldain Farmazia (Getaria), Zergatik (Urnietan), Joxemari Sors eta Jon Jaka (Elkar Fundazioa).

2018: Mitxelena Koop. Elk. (Hernani), Fideslan (Donostia) eta Jon Garaño eta Aitor Arregi.

Gasteizen euskaraz kontsumitzeak saria dakar!

Gasteizko merkataritza eta ostalaritza euskararen erabilera sustatzeko kanpaina jarri du martxan Bai Euskarari Elkarteak; urrian zehar Bai Euskarari ziurtagiria duten Gasteizko establezimenduetan euskaraz kontsumitzen duten bezeroek zozketa batean parte hartu ahal izango dute.

Gasteizen euskaraz kontsumitzeak saria dakar!

SARIAK

1. 100 €-KO BONO BAT.
2. 50 €-KO BI BONO.
3. HIRU HARPIDETZA ALEA ALDIZKARIAN.
4. LAU BAZKARI/AFARI BI LAGUNENTZAT.

LEHEN HITZAK BALIO HANDIA DU

Euskaraz? bai
Euskaraz? bai

bai euskarari baieuskarari.eus
Lan eta bizi euskaraz

Laguntzalea
Departamentu
de Turismo, Comercio
y Consumo
Gobierno Vasco

Bai Euskarari Elkarteak Gasteizen martxan duen **#LehenHitzaEUS** kanpainaren barruan kokatzen da ekimen hau. Horren helburua da hiriko establezimenduei eta kontsumitzaileei bide berriak irekitzen laguntzea, euskara baliatu beharreko aldagai gisa harturik. Hala, Gasteizko euskararen mapa osatzen joatea da kanpainaren muina, euskarazko kontsumoa errazagoa izan dadin.

Nola parte hartu zozketan

1. Euskaraz kontsumitu edo Lehen Hitza Euskaraz egiten duten bezeroen artean banatuko dira boletoak. Zozketaren boletoak urriaren 1etik 31ra arte banatuko dira Bai Euskarari ziurtagiria duten establezimenduetan.
2. Hiru boleto eskuratu beharko dira, Bai Euskarari ziurta-

giria duten hiru establezimendu desberdinetan.

3. Hiru boletoen kodeak baieuskarari.eus en aurkituko duzun formularioan sartu azaroaren 3a baino lehen. Saria jasotzeko hiru boletoak entregatzea beharrezkoa da.
4. Zozketa azaroaren 4an egingo da eta irabazleekin harremanetan jarriko gara.

Sariak

1. 100 €-ko bono bat.
2. 50 €-ko bi bono.
3. Hiru harpidetza ALEA aldizkarian
4. Lau bazkari/afari bi lagunentzat

Saridunek erabaki ahal izango dute Bai Euskarari ziurtagiria duten zein enpresatan erabili bonoak.

Badatoz jolasak!

Jolas hezitzaileen gida 2019-2020 eskuragarri elkar liburu-dendetan

ekar

[f](https://www.facebook.com/ekar) [i](https://www.instagram.com/ekar) [y](https://www.youtube.com/ekar) [in](https://www.linkedin.com/ekar) [tiktok](https://www.tiktok.com/ekar)

Lansarean lan-ataria, funtzionalitate berriekin

Lansarean.eus webgunea lana bilatu edo profesional egokiak aurkitzen laguntzeko euskarazko lan-atari bakarra dugu. 2015ean sortu zen eta urtez urte webgunearen erabiltzaileen kopurua handituz doa: 2018an 157.450 bisita izan zituen; 42.066 erabiltzaile zenbatu ziren eta, guztira, 391.001 orrialde ikusi ziren. 2018an Lansarean App-a aurkeztu genuen eta aurten funtzionalitate berriak eman dizkiogu atariari, hautagai zein enpresa gehiagok erabil dezaten.

Lan bila ari diren hautagaietako askok lan bilaketa konbinatua egiten dute, hau da, enpresen eskaintzen bitartez lana bilatzeaz gain, enplegu publikoko deialdietara ere jotzen dute. Hala, lan-atarian eskaintza publikoen atal berezi bat sortu da. Taula batean, era oso bisualean, indarrean dauden lan eskaintza publikoak ageri dira, une horretan horietako zeinetan eman daitekeen izena zehazten da, bai eta noiz izango diren hurrengo azterketak eta lan eskaintzak ere. Horrela bada, oso grafikoki, erabiltzaileak ikusi ahal izango du noiz eman dezakeen izena lan eskaintza publiko batean.

Lan eskaintza publikoetarako materiala

Atal berezi horrez gain, lan eskaintza publikoetara aurkeztu nahi dutenentzako baliagarri izan daitezkeen beste bi atal ere sortu dira: materiala euskaraz biltzen duen atala eta lan eskaintzetarako galdera poltsen atala.

Era berean, lan-atarian "Solagunea" ere baliatuko da hautagaien arteko harremanak errazteko eta dokumentazio-trukea ahalbidetzeko.

Bestalde, lan bila ari direnak aktibatu nahian eta proaktiboak izan daitezten, galdera-poltsa bat osatzeko aukera sortu da lan-atarian. Lan eskaintza bakoitzeko, hautagaiak test desberdinak sortzeko aukera izango dute, eta hauetan galderak pilatzen joango dira.

Lan eskaintza	Administrazioa	Izen emate epea	Azterketa data
Garajeko gidariak	TUVISA	2019/10/31ra arte	Zehaztu gabe
Artxiboko eta zerbitzu orokorretako ofizial plaza (desgaitasun intelektualak duten pertsonentzat) (3 plaza)	Gipuzkoako Foru Aldundia	2019/09/09 - 2019/10/18	
Obra eta Proiektuetako Teknikari Laguntzailea (12 plaza)	Gipuzkoako Foru Aldundia	2019/09/09 - 2019/10/18	
Zerga Agentea (11 plaza)	Gipuzkoako Foru Aldundia	2019/09/09 - 2019/10/18	
Delinetazailea (7 plaza)	Gipuzkoako Foru Aldundia	2019/09/09 - 2019/10/18	

Bideocurriculumak

Lan bila ari direnek, geroz eta gehiago, bere burua bideo bidez aurkezten dute. Bideocurriculumak txertatzeko aukera eskaintzen du orain Lansarean lan-atariak. Hautagai bezala sartu eta idatzizko curriculumarekin batera agertuko da bideozkoa igotzeko aukera.


Lansareanen hautagai edo enpresa bezala beraien kontuan sartu nahi dutenentzako sarrera errazagoa jarri da orain: webgunearen azalean sartutakoan agertzen dira orain, lehen baino argiago, bakoitzaren kontura sartzeko atalak.

Beste berrikuntza bat ere bada eskaintzetan izena eman dutenen kopurua agertzen dela. Hala, enpresek bakarrik ez, hautagaiak ere jakingo dute lan eskaintza jakin batean zenbat lagunek eman duten izena.

Hauk eta beste funtzionalitate berri batzuk eman dizkiogu Lansarean lan-atariari. Denak ikusi nahi badituzu, sartu Lansarean.eus webgunean.



ENPRESENTZAT EREDU DIREN DOKUMENTUAK ETA PROGRAMAK SORTU DITUGU



2:30 ordu

Ongi etorria eta sarrera.
Enpresara bisita.

Bilera: enpresaren aurkezpena.

Bilera: Euskara-planaren bilakaera.

Bilera: Euskara-planeko lanketa.

Bilera: Esperientzia partekatu + galde-eskeak
Berba eta kafea

EUSKARAGILETU PROGRAMA

BISITAK

2:15 ordu

Ongi etorria eta sarrera.
Enpresara bisita.

Bilera: enpresaren aurkezpena.

Bilera: bideo-emanaldia.


Bilera: Euskara-planaren onurak.

Bilera: galde-eskeak
Berba eta kafea

HELBURUAK

A MULTZOKOAK

- Euskaragileen esperientzia eta ezagutzatik ikasi.
- Prozesuan aurrera egiteko motibazioa.
- Laguntza eta aholku pertsonalizatuak.



B MULTZOKOAK

- Euskaragileen normalizazio-prozesuaren onurak eta etekinak ezagutu.

BATZORDEKO KIDEAK:

